

Sagu madarikatua

Gure lagunak, Gorka, Gontzal, eta Eneko eskolan daude. Eskola berria ezagutzen ari dira. Orain laborategiko atean daude. Gontzalek atea ireki du astiro astiro eta gauza bat ikusi du mahai gainean.

-Zer dago mahaiaren gainean? -Galdetzen du Gontzalek.

-Ez dakit -erantzuten du Gorkak.

Barrura sartu dira. Mahaiaren gainean kaiola bat dago eta kaiolaren barruan sagu polit bat.

Gure lagunak poz-pozik daude saguari begira.

-O! Zein polita den! -oihukatzen du Gorkak.

Gontzalek kaiola hartu du baina plaf saguak kaiolatik salto egin du eta korrika doa.



-Non dago saga? -galdetzen du Enekok.

-Goazen saga bilatzera! -dio Gorkak.

Sagua bilatzen dute baina ez dute topatzen.

Non ote dago? Zuzendaritzan? Bideogelan?

-Zuzendaritzan ez dago! -dio Enekok.

-Bideogelan ez dago ezer -esaten du Gorkak.

Baina, bapatean, Gontzalek zerbait ikusi du zulo batean.

-Begira! Hor dago -dio Gontzalek.

Sagua da? Zuek zer uste duzue?



SAGU MADARIKATUA

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Non daude gure lagunak?

2.- Zer ireki du Gontzalek?

3.- Non ikusi du gauza bat?

4.- Non dago sagu polit bat?

5.- Nork hartu du kaiola?

6.- Nondik egin du salto saguak?

7.- Sagua topatzen dute?

8.- Non ikusi du zerbait Gontzalek?

9.- Sagua da?

10.- Zer da?

Sagu madarikatua (Hiztegia)

Liburutegia	Jantokia
Laborategia	Xaboaia
Zuzendaritza	haserre
Gimnasioa	Triste
Bideogela	Pozik
Ikasgela	Negarrez
Ordenagailugela	Barrez
Saskia	Gainean
Kultur etxea	Kanpoan
Komuneko papera	Barruan
Patia	Azpian